

# Ohar batzuk *Urgull*, *Urkullu*, *Urkulu*, *Urkillo*, *Urkill*a leku izenen inguruan

PATXI SALABERRI ZARATIEGI\*

**H**enri Gavelek behin baino gehiagotan aldeztu zuen *Urgull* Donostiako mendi gazteludunaren gaskoi etorkia: 1918ko lanean (75. or.) egin zuen lehen aldiz, nondik heldu zen zehaztu gabe ordea, eta 1935ean (630. or.) berriaz, oraingoan ere jatorria argitu gabe. Ez dakit Iparraldeko hizkeretako *urgulu*-ren iturrama irudi duen (arazo nagusia bukaerako bokalean dugu) biarnes-gaskoiko *ourgùlh*, *orgulh*-en pentsatzen ari ote zen, nahiz hau ez den, dakidala, usaiakoa gure «hiztegi toponimikoa» dei dezakegunean. Guztiarekin ere, *Urgull*-en dokumentazioa ikusirik (Furundarena & Zaldua, 1995<sup>1</sup>), irudi du interpretazio hori ontzat hartu behar dela, hondarreko mendeotako agiritan herri etimologia sistematikoki nagusitu dela pentsatzen ez bada segurik: *Urgüeil* (1762), *Orgullo* (1768, 1774, 1813, 1830, 1837, 1840, 1851, 1858), *Urgull* (1813, 1850, 1864, 1876, 1917 eta orain), *Orgull* (1893). Damurik, ez dugu lehenagoko dokumentazioa ezagutzen. Tellabidek (1995: 189) *Orgullo*, *Urgullo*, *Orgal* eta *Orguleo* aldaerak biltzen ditu, datarik eman gabe, ordea.

Palayk bere hiztegi ezagunean *hourc* «lieu planté d'arbres, bois (vieux). Le mot est resté dans des noms de lieu» eta *Hourcade*, *Lahourcade*, *Fourcade*, *Lafourcade* leku eta pertsona izenetan dagoen *hourcade* «autrefois bois, petite forêt» jasotzen ditu. Rohlfsek (1977: 109) *hourc* hitzari Palayren adiera bera ematen dio lehenik eta «fourré de chênes» gero, eta gehitzen biarnes zaharrean *forc* erraten zela eta toponimian *Hourcs*, *Hourc perous* izenak daudela. Ondoren etorri diren ikertzaileek, aipatutako bi autoreen oinatzetan, antzeko erranahia ematen diote hitzari: «*Hourc* “lieu planté d'arbres, bois” a donné les noms tels que *Hourcade*, *Lahourcade* (PA) et autres *Lafourcade*, *Hours*

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa/Universidad Pública de Navarra.

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi dizkiogu Luix Mari Zaldua urnietarrari lan honen berri eman eta helbide elektronikoa helarazteagatik.

(PA), **Fourcès** (G)...» (Fénié & Fénié, 1992: 66), «**Hourq**. La forêt de chênes porte en gascon un nom issu du latin *furca* ‘fourche’ qu’il convient de ne pas confondre avec *hour(n)* ‘four’ [...]. Le terme *hourc* peut toutefois désigner bien évidemment tout type de fourche, carrefour ou même confluent de cours d’eau» (Morvan, 2004: 93-94)...

Bigoaren (zurezko sardearen) eta basoaren arteko lotura lehena egiteko bigarreneko zuhaitzen adarrak erabiltzetik atera izanen da, baina, dakidanez, ez dago Euskal Herrian ‘basoa’ adiera horren lekukotasunik, eta latinez ere, Ernout eta Meilleten arabera, ‘bigoa’ zen *furca*, edo honen itxura zuen edozein tresna, batez ere torturatzekoa, ez ‘basoa’.

Toponimia txikian opatzen ditugun *Urkullu*, *Urkulu*, *Urkullo*, *Urkillo*, *Urkilo* lortzeko hiru gauza behar ditugu: lehenik jatorrian *f*-rik ez zuen etimoa, hots, latin berantiarrekoa edo, hobe, erromantzekoa, bestela *b*-, *p*-, *m*-dun aldaeraren bat ere izanen genukeelako; hasieran *b*- edo  $\emptyset$  duten aldaerak berriak ohi dira, Mitxelenaen arabera (FHV, 264-265). Bigarrenik, *furca* horren aldaera maskulinoa, hots, *\*furcu*-ren tankerako zerbait behar dugu (*bifurcum* ‘bifurcation’ bazen latinez) *-ellu* atzizki txikigarria erantsi ahal izateko, bestela *-ella* baikenuke. Hirugarrenik, alboko sabaikaria (<ll>) behar dugu oinarrian, gurean, zenbait aldiz behintzat, *ll* > *l* pausoa azaltzea erraz samarra bada ere kontrakoaren (*l* > *ll*) arrazoia berri ematea zaila delako, palatalizazio adierazkorra ez baita, toponimoetan, ardura agertzen.

Beraz, *\*urquellu*-ren moduko batetik abiatu behar dugu (formaz ari naiz) izenburuan paratu ditudan toponimo gehienak erdiesteko. Bilakaera hau izan dateke: *\*Urquellu* > *\*Urkellu* > *\*Urkillu* (kontsonante palatak bokala asimilatu ondoan) > *Urkullu* (Etxalar, bokal asimilazioz; cf. *gaitziru* / *gaitzeru* / *gaitzuru*) > *Urkulu* (despalatalizazioz, Aezkoan [Urkulu] eta Luzaiden [Urcularte, 1856]). *\*Urkellu* > *\*Urkillu* pausoa inoiz antroponimian kausitzen dugun bera da (*Pello* > *Pillo*), baina, jakina, ezin da ahaztu erdaraz *-ellu* > *-iello* > *-illo* bilakaera izan zela, eta Etsaingo *Urkillo* toponimoa *\*Urkellu*-tik gabe *\*Urquiello*, *\*Orquiello* bezalako forma batetik ere atera zitekeela. Goizuetako *Mendiurkullo* toponimoko *-urkullo*-rendako *Urkillo* > *Urkullo* bilakaera proposatzea dateke egokiena, herri honetan ez baitu balio Baztanendako hurrengo paragrafoan ematen dugun esplikazioak (ikus).

Beste aukera bat *Urkillo*-ren azken bokalaren irekitzean arrazoi morfologikoa dagoela pentsatzea da, hots, toponimoa bizirik dagoen inguruan *bilo* + *a* > *bilua* (*bílwa*), *olo* + *a* > *olua* (*ólwa*) egiten dela edo zela, zein *buru* + *a* > *burua* (*búrwa*)-ren modukoekin bat baitzeturren, eta, honen ondorioz, jatorrizko *Urkillu* forma *Urkillo* bilakatu zela. Honetarako leku izena artikulua-rekin ibiltzen zela kontu egin beharra dago. Nolanahiko gisan, gero, Amaiur eta Arizkun bezalako herrietan, despalatalizazioz *Urkillo* > *Urkilo* aldakuntza burutuko zen. Urdazubiko *Urkiloa*-k toponimoa mugatzailearekin ere erabiltzen dela frogatzen du, baina *-oa* segida dugu hor, ez *-ua*. Hizkera hauetan, dena dela, aski labaina izaten da *-oa* eta *-ua* bereiztea, bi soinuek diptongoa osatzen dutenean, alegia, *-o-* eta *-u-* horiek silabagileak ez direnean, *-ea* eta *-ia* parearekin agitzen den bezala.

Bestalde, Berako *Urkilla*, Etxarri Larraun eta Uitziko *Mendiurkilla* (NTEM XLV, 197) azaltzeko etimo femeninoa behar dugu, *\*Urquella*-ren moduko bat, edo, bestenaz, eta gorago erran duguna aintzat harturik, *\*Urquiella*, *\*Orquiella*. Erdarazko *Horquilla* [orkilla] bera ere egokia da *Urkilla* ho-

rrren etimotzat (cf. Iturengo *Or[t]zorrotz > Ol[t]zorrotz > Urtzortza*, Iñigo 1996: 304-305, eta ikus Mitxelenak *FHV* 64-n dioena, *i* edo *u* batek aurreko *e* edo *o* ixteaz). Ezkurrako *Urkillerreka*-ren lehen osagaia azaltzeko hoberena *Urkill*a proposatzea da, *-a + e- > -e-* egitea usaiakoa baita gure hizkuntzan, eta gauza bera erran daiteke Beintza-Labaiengo *Urkilleko erreka*-z.

Ez da atzentzen ahal, puntu honetan, *urkila, urkilla, urkula, urkullu* hitz arruntak direla edo izan direla euskaraz, ‘sostén de ramas’, ‘horquilla, utensilio manual’, ‘bifurcación de las ramas de un árbol’, ‘cada uno de los palos terminados en una U de hierro, que llevan los conductores de bultos’ adierekin (ikus *OEH* eta Coromines & Pascual, *horca* sarrera). Hauetaz landara, ‘gorua’, ‘kiloa’ erranahia duten *murkuila, murkulu, murkila, burkuila, urkila, urkil* ere badira. Toponimian, ikusteari lotuko ez banaiz ere, *Murkullua* dago Uztarrozeko dokumentazioan (*Burkula* orain), eta *Murkiltto* Ihabenen, ikusten den bezala biak *m*-rekin hasiak. Hemen, dena dela, *mukuru, mukullu, muskullo, muskil* (cf. *Muskilda*), *muskillo* ‘(harri) mukuru’, ‘harri pila’ dela-koaren sailarekin nahasteko aukera franko daude (ikus *NTEM* XIV, 203-204).

Toponimian aurkitzen ditugun izenburuko horien motibazioa dela eta, badirudi, erran dugun bezala, ‘basoa’ edo ‘haritz basoa’ ez dela agertzen gurean, baina ni behintzat ez nago batere segururik horretaz, Euskal Herria handia baita bere txikian. Zenbait aldiz leku izenaren oinarrian bigo edo sardearen (bukaeraren) forma duen tokia deskribatzea izanen da toponimoaren arrazoia, hots, U itxura duen lekua adieraztea, atea delako (cf. Luzaideko 1856ko *portillo de Urcularte*, Etxarri Larraun eta Uitziko *Mendiurkilla*) edo forma hori duten bi haitzek osatutako aurkintza delako, eskuarki leku gora.

Bizkaian badira *Urkulu, Urkullu* mendi eta malkorrekin lotzeko bide ematen diguten toponimo batzuk: *Atxurkulu* (Busturia, Durango, Elantxobe, Murueta, Nabarniz), *Atxurkulua* (Forua, Izurtza, Mañaria), *Ganurkulu* (Aulesti), *Urkulumendi* (Larrabetzu, Gamiz-Fika, Morga)... *Urkulu* (*Larrabetzu*) eta *Urkulueta* (Zeberio) ez hain argiegi lekora. Gipuzkoan, besteak beste, *Mendiurkullu* dago Ataunen (baserria da hemen) eta Idiazabalen (tontorra), *Urkullu* (gaina eta tontorra) eta *Urkullutxiki* («bigarren mailako tontorra», *Urkullu*-tik «jaisten den bizkarra») Oiartzunen (Goikoetxea & Lekuona, 2007: 309), *Urkulamendierreka* Tolosan (Aldaban, Udalaren webgunea; ikus Goikoetxea & Elozegi). Araban, Lopez de Gereñuk jasotzen dituen lekukotasunetara mugatuz, Done Bikendi Haranako *Buruurquilloa* (1708) eta *Uruzquillu* (1758, mendia; \**Uruzquillu* segur aski, 1772an eta 1824an *Uruzquillo* soroak ageri baitira) aipa ditzakegu, hondarrekoa *ur*-ekin ere lot daitekeen arren, *buru*-rekin ez ezik. Hor daude, orobat, Maurgako *Urquillo* (datarik gabe) eta Zuiako *Urquillu* (1709) mendiak.

Donostiako *Urgull*, fonetikoki, aise lot daiteke hemen aztertu ditugun beste formekin, jakina den bezala dardarkari ondoan, zenbait hizkeratan eta testuingurutan, ahoskabea ahostundu egiten baita (*Etxalargoa, hordik, horgoa...*). Gainera, gaskoian ere, Rohlfsek dioenez (1977: 137), ongi ezaguna da *k, p, t > g, b, d* pausoa, ozen ondoan. Bestalde, ustezko bukaerako bokalaren erortzea arrunta da hizkuntza horretan (ibid., 125) eta, beraz, oztoporik ez dago alderdi honetatik. Alegia, bestetan aurkitzen dugun *Urkullu*-ren moduko toponimoa izan liteke jatorrizkoa, gero, Donostian mintzatzen zen gaskoiaren eraginagatik \**Urgull* bilakatu zena, baina gorago aipatu ditugun datu dokumentalek ez dute zentzu honetan hitz egiten, oinarrian ‘urgulua’ adiera duen elea ikustearen alde baizik.

Zernahi gisaz, ezin da ahantzi *furca*-ren eratorri batzuek (*bifurcus*, *bifurcum*...) latinean berean 'bidepartitzea', 'bi bide bereizten diren lekunea' adiera zutela, segur aski bidepartikunek bigo itxura dutelako, eta leku izendegian, behin edo beste, horixe izan daiteke jatorriz adierazi nahi zena. Zentzu hau duke Estarroako 1707ko *Bidaurqullua* toponimoak eta *bida*-aldakakorik ez duten *Urkulu*, *Urkullu*, *Urkillu*, *Urkullueta*... horietako batzuek.

Halarik ere, euskal toponimian askotan hidronimoekin, iturri eta errekin aurkitzen ditugu *Urkillu*, *Urkilo* eta beste Nafarroan: *Urkilleko erreka* (Beintza-Labaien, Berroeta), *Urkillerreka* (Ezkurra), *Urkiloko erreka* (Arizkun), *Urkulluko erreka* (Etxalar), *Urkilloko iturria* (Etsain)... Berebat Araban: *Urkulu* (ustez, Baranbio eta Altuberen artean; M. Gorrotxategik dioskunez bi erreka biltzen diren gunea izendatzen du), *Urkuluerreka* (Elgea mendiko aurkintza), Bizkaian: *Errekaurkullu*, *Sarduiko Errekaurkullu* eta *Urkullu* (Orozko), *Errekaurkullueta* (Zeberio), *Urkukulla*, *Urkullu*, *Urkulluerreka* (Barakaldo, sarde itxura duen ubilotsa, erreka bilgunea, Bañales & Gorrotxategi, 2007: 260-261), *Urkuluerreka* (Morga). Beraz, irudi luke Corominesek eta Pascualek aipatzen duten *horqueta*, *forqueta* 'curso de agua que forma ángulo agudo' hitzak duen motibazio bera edo antzekoa duela, hots, bi erreka batzen diren aurkintza edo ugaldeak angelu zorrotza egiten duen eremua dela. Gure ustekizun hau, edozein modutan, tokiak ikusiz, lekuetara joanez egiazta edo gezurta daiteke.

Ezagutzen ditugun *Urkullu*, *Urkullo*, *Urkillu*-ren lehen lekukotasunetan erreka batzuek izendatzen direla dirudi, bai Legazpiko hauetan (Aierbe, 1995: 124 eta 126, 1455):

... al otro mojon que esta ençima de Ururcullua de Gorostyaga e dende abaxo donde se juntan los dos arroyos que se llaman el un arroyo Arriçabala-ga e el otro arroyo de Arrola.

... el dicho lugar de Tenuola [...] por la parte de Corrtamuno [...] queda en salvo la pasada de Ururcullua.

Bai Altzaniakoetan, hots, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoaren artekoetan (Pozuelo, 2001: 257 eta 263, 1512):

... e dende al churru de Garagarça [...] do se juntan las dos aguas de Crimizturguilu<sup>2</sup> e den<sup>de</sup> a la peña de Gazteluberria e dende ha Ollaerrecu Vrcullugoticoa, e dende commo dize el arroyo a la esquina que viene de Beçe-reçuyñ al Lodacatial (sic, 'lodazal') e dende a Bazterrocagachurrua.

... azia la parte de Guipuzcua en Churru de Garagarça [...] donde se juntan los dos arroyos de Çumiztihurcullo [...] las dos peñas de Gazteluberria [...] en el termino de Olaerrecohurcillagoytia.

Ikusten den bezala, *urkuilu*-k edo *urkila*-k hemen ubilotsa ez ezik haitz bikiak ere adieraz ditzake.

Agiri bilduma berean azaltzen den *Urhurcullua* lehenagokoa da (Pozuelo, 2001: 380, 1469), eta dudarik ez dago ubila, ubilotsa, bi uren batzea adierazten duen izenaren aitzinean garela:

... asta donde el mortuero de Olça donde se juntaban las dos agoas, ençima el balle de Janlopeasteysarana<sup>3</sup>, donde dizen Urhurcullua.

<sup>2</sup> *Cumizturgullu* irakurri beharko dela dirudi; ikus bigarren aipua.

<sup>3</sup> Beherago, lan berean, *Jaunlopeasteizarana* ageri da.

Laburbilduz, erran dezakegu aipatu izenek ondoko hauek adierazteko ibili izan direla:

1. Bi erreka edo ubide biltzen diren lekua. *Ubilla, Ubillegi, Ubillots, Ibillots*-en parekoa dateke, beraz, baina badaiteke elkargunea itxuraz, formaz desberdina izatea, kasu batean eta bestean.
2. Bi mendien arteko atea, harrartea, lepoa edo.
3. Bi bide bereizten –edo elkartzen– diren gunea.
4. U itxura duten mendiak, haitzak, gainak...

*Urkullu, Urkullo, Urkilla* eta bestek zehaztailea eraman dezakete aitzinean edo gibelean, berez generikoa zen izenak zer adierazten duen garbi geldi dadin:

- a) *Atxurukulu(a), Buruurkullu, Ganurkulu, Mendiurkullu – Mendiurkullo – Mendiurkilla – Urkulumendi, Urkularte* ditugu batetik,
- b) *Errekaurkullu – Errekaurkulleta – Urkillerreka – Urkiloko erreka – Urkulluko erreka – Urkulluerreka – Urkulluerreketa, Ururkillo – Ururkullua* bestetik.

*Urgull* mendi izenak ez duke zerikusirik *Urkulu, Urkullu, Urkilla* eta besterekin, *urgulu* ‘harrokeria’ izen arruntaren jatorrikidea bide delako.

## BIBLIOGRAFIA

- AIERBE, R. M. (1995): *Documentación medieval del archivo municipal de Legazpia (1290-1495)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 60, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- BAÑALES, G. & GORROTXATEGI, M. (2007): *Toponimia Histórica de Barakaldo*, Euskaltzaindia & Barakaldoko Udala & San Antonio argitaletxea.
- COROMINES, J. & PASCUAL, J. A. (1987): *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Gredos, Madril.
- ERNOUT, A. & MEILLET, A. (1994): *Dictionnaire Étymologique de la Langue Latine. Histoire des Mots*, Paris, Éditions Klincksieck, laugarren argitalpenaren berrikusketa.
- FÉNIÉ, B. & FÉNIÉ, J.-J. (1992): *Toponymie gasconne*, Editions Sud Ouest, Luçon.
- FURUNDARENA, J. J. & ZALDUA, L. M. (1995): *Donostiako toponimia*, lan argitaragabea. Sarean sago eskuragai, ondoko helbidean: <http://www.euskaraz.net/Toponimia/Toponimia-Etnogintza1.pdf>.
- GAVEL, H. (1918): “Note sur d’anciennes colonies gasconnes”, *RIEV*, 9, 75-77.
- (1935): “Le nom de Fontarabie est-il d’origine gasconne?”, *Mélanges de littérature, d’histoire et de philosophie offerts à M. Paul Laumonier*, Paris, 628-633.
- GOIKOETXEA, I. & LEKUONA, I. (2007): *Oiartzungo toponimia / Toponimia de Oiartzun*, Oiartzungo Udala.
- GOIKOETXEA, Ir. & ELOSEGI, J. I. (2006): *Tolosako leku izenak*, Tolosako Udala, Tolosa. Udalaren webgunean, euskara atalaren barnean daude kale izendegia eta toponimia biltzen duten bi artxiboak, nornahiren esku.
- IÑIGO, A. (1996): *Toponomástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- JIMENO JURIO, J. M<sup>a</sup> (zuz.) (1990etik aitzina): *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra (NTEM)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- LESPY, V. & RAYMOND, P. (1998): *Dictionnaire Béarnais Ancien & Moderne*, J. Lafittek egindako argitalpena.
- LOPEZ DE GERENU, G. (1989): *Toponimia alavesa seguido de mortuorios y despoblados y pueblos alaveses*, Onomasticon Vasconiae 5, Euskaltzaindia, Bilbo.
- MITXELENA, K. (1953): *Apellidos Vascos*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia. Txertoak egindako bosgarren edizioa ere ibili dugu (Donostia, 1997).

- (1987-2005): *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*, Desclée De Brouwer & Euskaltzaindia & Mensajero, Bilbo.
- (1990): *Fonética Histórica Vasca (FHV)*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 4. argitaraldia.
- MORVAN, M. (2004): *Noms de lieux du Pays basque et de Gascogne*, Bonneton, Paris.
- PALAY, S. (1991 [1974]): *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, CNRS éditions, hirugarren argitalpenaren berrinprimaketa.
- POZUELO, F. (2001): *Documentación municipal de la cuadrilla de Salvatierra: Municipios de Asparrena y Zaldondo (1332-1520)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 106, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ROHLFS, G. (1977): *Le Gascon. Études de Philologie Pyrénéenne*, Max Niemeyer & Harrimpouey, Tübingen & Paue, hirugarren edizio berretua.
- TELLABIDE, J. (1995): *Donostiako Toponimi Erregistroa / Registro Toponímico Donostiarra*, Kuxta Gizarte eta Kultur Fundazioa, Donostia.

## LABURPENA

*Ohar batzuk* Urgull, Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla leku izenen inguruan Lan honetan Euskal Herriko toponimian han-hemen errepikatzen diren *Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla* izenak aztertzen dira, bai eta ere irudiz hauekin loturik egonagatik izatez inolako erlaziorik ez (bide) duen Donostiako *Urgull* oronimoa. Lehenik, izen horien etorkiaren karietara, latineko *furca* eta *\*furcu*-ren eratorrietatik atera direla erraten da, eta gero lau adiera nagusi izan dituztela: 1) Bi erreka edo ubide biltzen diren lekua, 2) bi mendien arteko atea, harrartea, lepoa edo, 3) bi bide bereizten –edo elkartzen– diren gunea, 4) U itxura duten mendiak, haitzak, gainak. Aipatu izenak bakarrik ager ditezke, baina baita ondoan, aitzinean edo gibelean, zehaztaile zenbait dutela ere.

## RESUMEN

*Breves observaciones sobre los topónimos* Urgull, Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla

En este artículo se ocupa el autor de los nombres *Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla* que se repiten aquí y allá en la toponimia de Vasconia, y trata también del orónimo donostiarra *Urgull*, aparentemente del mismo origen que los mencionados topónimos pero que en realidad no parece guardar ninguna relación etimológica con los mismos. Se establece en primer lugar que aquellos nombres proceden en última instancia del latín *furca, \*furcu*, y, seguidamente, que denominan cuatro realidades diferentes: 1) el lugar en el que se unen dos cursos de agua, 2) el paso, collado o portillo entre dos montes, 3) el lugar en el que se separan –o unen– dos caminos, 4) elevaciones con forma de U. Dichos nombres pueden ir solos, pero también acompañados de otro elemento antepuesto o pospuesto.

## RÉSUMÉ

*Brèves observations sur les toponymes* Urgull, Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla Dans cet article l'auteur aborde les noms *Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla* que l'on retrouve ci et là dans la toponymie de du Pays Basque, et traite aussi l'oronyme de Saint Sébastien *Urgull*, qui est apparemment de la même origine que les toponymes cités mais qui en réalité ne semble pas avoir de rapport étymologique avec ceux-ci. En premier lieu, on établit que ces noms proviennent en dernière instance du latin *furca, \*furcu*, et, qu'ensuite ils désignent quatre réalités différentes. 1) La confluence de deux cours d'eau, 2) le passage, col ou port entre deux montagnes, 3) l'endroit où se séparent –ou se

rencontrent– deux chemins, 4) l'élévation en forme de U. Ces noms peuvent être seuls, mais aussi accompagnés d'un autre élément placé avant ou après.

#### ABSTRACT

*Brief observations on the place names Urgull, Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla*  
In this article, the author takes a look at the names *Urkullu, Urkulu, Urkillo, Urkilla*, repeated throughout the toponymy of Vasconia, and the San Sebastian oronym *Urgull*, which may appear to share the same origin as the aforementioned place names, but which, in fact, would not seem to have any etymological relationship with them at all. It is, first of all, established that these names ultimately come from the Latin *furca*, *\*furcu*, and, secondly, that they refer to four different realities: 1) The place where two waterways meet, 2) the pass, passageway or gap between two mountains, 3) the place at which two paths separate –or join, 4) U-shaped rises in the ground. These names may be used alone, but may also be accompanied by another element placed either before or behind.

